JOSE LUIS

Enpresaburu erdalduna; euskara sustatzailea

"Enpresak konektatuta egon behar du gizartearen behar eta eskakizunekin; euskara gurea dugu eta ezberdin egiten gaitu gainera, horregatik euskara bultzatzea dagokigu guri.

52 URTE, GASTEIZ

LANA ZAMUDION

IBILBIDE PROFESIONALA

- Ingeniaritza ikasketak ditu.
- Oso-oso gazterik enpresa munduan lanean hasitakoa da.
- Zuzentzen duen enpresaren sortzaile da edo enpresa horretan ibilbide oso luzea duena.
- Beste enpresa egitura edo elkarte batzuetako kide eta ordezkari ere bada; enpresa taldea, sektoreko klusterra, patronala.
- Administrazioarekin eta unibertsitateekin harremana dauka eta oso ondo ezagutzen du bere sektoreko teknologia arloa.
- Bere lana gazteleraz egiten du.

MOTIBAZIOAK

- Gazteak euskaraz lan egiteko prestatuta datoz eta denborarekin joango dira enpresak euskaldunduz.

KEZKAK

- Talentua erakartzeko zailtasunak ikusten ditu.
- Enpresaren egitekoa aberastasuna sortzea da eta enpresaren iraunkortasuna nahi du.
- Nazioartean lehiatzen du eta enpresaren emaitza ekonomikoek kezkatzen dute.

NARRATIBAK

- Euskara **balio erantsia** da eta langileek jakitea onura da guztiontzat.
- Euskarak **nortasuna** ematen du eta ezberdin egiten ditu enpresak; euskara sustatzea erroak zaintzeko eta enpresa gisa indartsuago izateko modu bat da.
- Jendeak enpresan oso ondo baloratzen du **euskara sustatzeko** egiten den **ahalegina** eta beti dago "pixka bat gehiago" egiteko eskaera.
- Enpresan erabiltzen diren hizkuntzek euren funtzioak oso argi dituzte; euskara langileen arteko harremanetareko hizkuntza da, batez ere.
- **Alderdi tekniko-teknologikoan,** hau da, produktuaren garapenerako, ez da euskararik behar; ingelesaren eremua da hori.
- Enpresak konektatuta egon behar du gizartearen behar eta eskakizunekin; **enpresak erreferente**a dira alderdi askotan, eta euskararen gaian ere izan behar dute.
- Korporatiboki, eta kanpora begira, ez da behar **enpresaren irudia edo marka** euskararekin lotzerik, ez baitu ekarpen praktikorik egiten. Dena den, garrantzitsua da maila lokalean (EH), enpresaren irudia euskararekin lotzea.